

SESSION 2012

**CAPES
CONCOURS EXTERNE
ET CAFEP**

**Section : LANGUES RÉGIONALES
BASQUE**

COMMENTAIRE DIRIGÉ ET TRADUCTION

Durée : 5 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Le commentaire dirigé et la traduction sont à rédiger sur des copies distinctes.

Dans le cas où un(e) candidat(e) repère ce qui lui semble être une erreur d'énoncé, il (elle) le signale très lisiblement sur sa copie, propose la correction et poursuit l'épreuve en conséquence.

De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, il vous est demandé de la (ou les) mentionner explicitement.

NB : Hormis l'en-tête détachable, la copie que vous rendrez ne devra, conformément au principe d'anonymat, comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé comporte notamment la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de signer ou de l'identifier.

Tournez la page S.V.P.

1-COMMENTAIRE DIRIGE

Azpiko testuaren azterketa egituratu bat proposatuko duzu.

« PUPITREETAN BINAKA »

Kalaportuko ikastetxera sartu behar genuen eta, astelehen hartan, amak goiz esnatu zuen Goio :

- “Gora ohetik, gaur eskolako eguna da ! Formal ibili eta kasu egin maisuei. Ikastetxe ateraino lagunduko zaitut ?”

Goiok begiak zabaldu eta erantzun zion amari :

- “Bakarrik joango naiz !”

(...) Baina, batxilerreko laugarrena hasterakoan lotsagarria zen amarekin agertzea. Bazegoen ia mehatxua egiten zuen hitza ere, amazulo esaten zitzaion kalean amarekin edo amaren inguruan ibiltzen zen mutikoari.

- “Horrek mutil horrek amarekin lo egiten du oraindik !” esaten zen.

Eskolara ailegatu eta amak, Goiori traketsa iruditu zitzaion erdaraz esan zion Padre Mendiberi, “Buenos días, soy la madre de Gregorio Ugarte”. Eta jesuita hark ordurako hiru lau amari esandako berbera esan zion Goioenari ere : “Al final del curso se sentirá usted orgullosa de su hijo”.

“Zoaz, ama !” erregutu zuen Goiok.

Ernegatuta zegoen amarekin, lagunen begirada burloiak sumatzen baitzituen, eta masaila apartatu zion amaren agur musuari.

Eta bakarrik geratu zen laster hantxe pasilloan, 4-B atetik ez urrun.

Ni goizeko zortziak hogeit gutxiagotan ailegatu nintzen aitaren autoan, Bilbotik eguna argitu orduko irten ondoren.

Gogoratzen dut aita gorbata lasaituta eta ilea bekoki gainean dantzan zihoala bolantean eta ni ezkerraldeko leihotik burua erdi aterata, zeharkatzen genituen paisaia berde lanbrotsuei begira eta goizeko haize freskoa edanez.

“Gauzak gogor daude eta”, hauxe izan zen aitaren esaldi bakarra bidaia osoan, “ez duzu laugarrena errepikatuko, ez ?”

Jesuitekin heziketa ona izango nuela eta gurasoek Kalaportuko ikastexean matrikulatu ninduten, interno gainera, Bilbon ere hainbat eskola eta ikastetxe bazen arren. Eta han jaitsi nintzen autotik nire galtza luze estreinatu berriekin, nire larruzko maleta berriarekin.

Autotik jaitsi eta harrizko edifizio ikaragarri hari begira geratu nintzen. Mutiko piloa zegoen aurrean, aitamak ere ugari. Eraikina grisa zen, goizeko eguzkitan jadanik, lau pisu zituen eta oso luzea zen, izango zituen ehunen bat metro, eta leihoak lerroz lerro, eta eliza gotiko bat oso dotorea alde batean.

Aitak euskaraz galdetu zuen :

- “Batxilerreko laugarrena non da ?”

Eta ateetako bat seinalatu ziguten, “Cuarto por allá”. Eta klaustro ilun eta jendez bete hartan barrura sartu ginen, aita nire maletarekin eta ni larruzko zorro berriarekin.

- “Laugarrena non dago ?” galdetu zuen aitak.

- “Hementxe” erantzun zion euskaraz mutil ilegorri batek.

- “Zu ere laugarrenekoa zara ?” galdetu zion aitak.

- “Bai”
- “Orduan baduzu hemen lagun bat, Andoni. Ni banoa...”

[...] Txirrina totalka hasi zen klasera sartzeko ordua abisatzeko eta bi ilara egin ziren, Goio batean eta ni bestean suertatu ginen eta keinu egin nion. Ez dakit Goiok ilara haiek oroituko dituen. Bazegoen han lagun bat ikaragarri lodia, lehenengo jarri zen atean sartzeko eta Zumalde zuen abizena, eta bere gainetik salto egitea errazagoa zen bere ingurutik pasatzea baino. Azkenerako, sartu ginen. Bederatziak pasatuak izango ziren erloju gehienetan.

Hogeita hamarren bat mutiko geunden, pupitreetan binaka, eta errektoreordea agertu zenean denak zutitu ginen. Atean geldiunea egin zuen, denak zeharo isilik egon ginen arte, eta orduan sartu zen irribarrez oholtzaren erdiraino. Han zutik gelditu zen eta serio serio so egin zigun. Argala eta altua zen, sotana beltza oinetako beltzetatik samaraino, portzelanazkoa ematen zuen samako zuria, ezpain fin finak, betaurrekoak beltzak, eta ilea bel beltza atzerantz orraztua eta koipez lisatua.

Han hogeita hamar bageunden banan bana denoi begiratu zigun eta, ordurako zeharo betilun, galdetu zuen :

- “Eta zuek zertara etorri zarete hona ?”

Ikasgela handia zen, hormak altuak eta berdeak, eta umeltasun gune ugari pintura galduarekin. Atzealdeko horman gurutzea zegoen, horixe zen klasera sartzean ikusten zen lehenengo gauza. Aurre aurrean oholtza, oholtzaren ezkerrean mahaia eta mahaiaren gainean globomundia. Arbel zabala ere han zegoen, ezer izkiriatu gabe oraindik, beltz garbia, eta arbolaren gainean Francisco Francoren erretratua.

Isiltasun hotza luzatu ondoren, Padre Solanak ikasleen zerrenda errepatatuko zuela esan zuen.

Lagun izoztua, Joseba Sarrionandia, Donostia (Espagne) Ed. Elkar, 2001(123-127 or.)

Galderak :

- 1) Eleberri zati honetan erabilia den esakuntza azter ezazu, narratzailearen ikuspundua batez ere.
- 2) Zer du ikusteko sorkuntza literarioak gizarte baten historia kulturalarekin ? Euskal literatura garaikideak ba ote du funtzio berezirik betetzeko ?
- 3) Horrelako kondaketetan, “ispiluaren irriskua” bada beti. Zer aukera egin du idazleak errealitate historiko-kulturalaren aurkezteko molde “sinesgarri” batez.

2-TRADUCTION

Version

[Katina] jite bortitzeko emaztea zen eta auzo zonbeitekin makurtua ere zen. Auzo batek Katinaren larretik igaraiteko ohitura bazuen lera iratze edo belarrarekin, bide nabar zuelakotz etxerat, besteñez inguru handia baitzen bide zuzenez egiteko. Katinak eza minki emana ukana gatik, huna gure gizona berriz ere heldu gainbehera [...] bera itzain eta mutil tipia leraren gibeletik jarraikiz. Katina leihotik so zitzaien : etxeparreratu zirelarik hasi zitzeien laido ta buho xaramelan : « deurrien kotzilo mekela, [...] koner zikina, balinbaa Gaztain-Zilon dena pekuaz gora uzkaliko ahal zauk, hizen bezelako ustela, zikiro zikite tripa kofa tzar ezjeusa ! » Eta ? Gaztain-Ziloko maldan behera abiatu zeneko gure behi-lera ta itzain taldea, lera uzkali pekoaz gora. Geroztik jende horientzat ez zen ezbaiik : Katina sorgina zen.

Eñaut Etxamendi, « Mendabiako Pelo », *Maiatz* n°24, août1995

Lera : traineau.

Thème

Mon travail est donc inspiré par une idée qui contredit ce que j'appellerai le paradoxe attribué à Stendhal. [...] On connaît l'aventure de Fabrice del Dongo sur le champ de bataille de Waterloo. Un jeune Italien de dix-sept ans se jette au travers de la grande bataille comme un chien dans un jeu de quilles, achète successivement trois chevaux pour les perdre aussitôt, joint son sort tour à tour à celui d'une cantinière, des hussards de l'escorte du maréchal Ney, [...] d'un caporal qui fait sa petite guerre en enfant perdu avec son escouade [...]. Ce récit absurde est une farce où Stendhal exerce son humour. [...] Stendhal avait trop de bon sens pour ne pas voir qu'un témoin, s'il peut se raconter lui-même, ne peut pas témoigner pour les trois armées qui s'affrontèrent. [...] On eut vite fait de pousser plus loin et de dire que, de tous les témoignages possibles sur la guerre, celui de l'homme qui a mis la main à la pâte est le plus insignifiant.

Jean Norton Cru, *Du témoignage*, Gallimard, 1930